

INDEPENDENTZIA: Utopia ala errealitatea XXI. mendean?

Txutxi Ariznabarreta

Independentistak Sareko kidea

INDEPENDENTISTAK Sarea 2010eko otsailean jaio zen eta hilabete gutxiren buruan ezaguna eta erreferentziala bihurtu da. Ekimen bat gauzatzen duen bakoitzean bere ezaugarria den kolore berdeak betetzen ditu Euskal Herriko kaleak. Honek arrazoa ematen digu proposamen independentista bere pisu guztiarekin eztabaida politikoa sartzeko ordua dela pentsatzen dugulako mugimendu anitz eta partehartzaile hau bultzatu dugunoi.

NEGAZIONISMOTIK, KONTRANAZIONALISMOTIK ETA IRAGANEKO GEZURRETATIK GAURKO ERREALITERA

Planteamendu independentistak etengabe ukatuak, deskalifikatuak eta erasotuak izan dira estatuen aldetik joan den mendean zehar. Lehen eta behin, jarrera negazionista batetik, ez dira aintzakotzak hartu nazio moduan ekintza politikorako antolatu eta mobilizatu diren talde etnikoak. Hots, bere izaeraz politikoki jabetu eta bizi-iraupenerako eta bere identitatearen garapenerako estrategia duten etniak. Nazio hitzaren erabilpena estatuaren sinonimo moduan inposatu dute eta ukatu egin dute estatu subiranoetatik at naziotzat hartzeko moduko errealiterik egon daitekeen ere.

Gertakizunen ebidentziak nazioen existentzia eta gora-behera historiko askotan izan duten garrantzia aitortzera behartu dituenean, negazio-



Txutxi Ariznabarreta

nismotik kontra-nazionalismora pasatu dira; edozein nazionalismo edo independentismo guztiz zorigaitzokotzat eta kaltegarritzat jo dute eta gatazka, konbultsio eta gudekin lotu dute. Independentismoa estigmatizatu eta kriminalizatu egin dute.

Gainera, gaur egun begien bistakoak diren gezurrak eratu dituzte independentismoa deslegitimatzeko. Joan den mendean zehar, estatua XIX. mendeko kontua zela eta gaudituta zegoela esaten ziguten, behin eta berriz. Lurralde kolonialetan zentzua zuela, agian, baina European ezinezkoa zela mugak aldatu eta estatu berriak sortzea. Eta, horrez gain, Euskal Herriaren moduko lurralde txiki batek ez zuela etorkizun ekonomikorik estatu handiago baten merkatuaren babesik gabe.

Baina XXI. mendean gaude eta mundua estatu bitartez dago antolatuta, eta estatu gabeko herri eta nazioei ez zaie estatus alternatiborik eskaintzen. Bi aukera besterik ez dute gaur egun ere: izan ala ez izan. Independentzia ala asimilazioa estatu menperatzaileraren aldetik.

Estatu berriak sortu izan dira, eten gabe, munduan eta European bertan ere. Eta gugandik oso hurbil ikusten ari gara independentzia prozesu demokratiko oso aurreratuak Eskozia eta Flandrian, adibidez; eta Hagako Epaitegiaren ebazpen hain garrantzitsua Kosovoko alde bateko independentzia aldarrikapenaren inguruan.

Eta ekonomiaren gaian, espainiar eta frantziar Estatuekiko menpekotasuna da, hain zuzen ere, hondamendira garamatzana eta gure etorkizuna hipotekatzen duena.

“Pero la realidad se impone. Muy cerca de nosotros podemos contemplar procesos democráticos independentistas muy avanzados en Escocia y en Flandes. Asimismo, la resolución favorable del Tribunal de la Haya a favor de la independencia declarada unilateralmente por Kosovo.”

INDEPENDENTZIAREN ORDUA

ETAk bere jarduera armatua behin betiko amaitutzat jo ondoren garai politiko berria zabaltzen da Euskal Herrian, eta independentistok ilusioz begirutzen diogu egoerari, garai berriek aukera berriak irekitzen dizkiotelako independentismoari eta gure arteko jarduera amankomunerako baldintzak indartzen eta sakontzen direlako.

Lehen eta behin, gatazka politikoa benetan gainditzeko sakoneko prozesu demokratikoari heldu beharko zaio eta badakigu zeintzu diren gakoak: Euskal Herriari bere naziotasuna eta lurraldetasuna aitortu eta erabakitzeko eskubidea onartu, hots, autodeterminazio eskubidea. Beste modu baten esanda, argi berdea independentziari. Zeren, independentziari argi berderik gabe ez dago demokraziarik. Hor dado gako demokratikoa.

Argi dago epe laburrari begira horixe dala premiazko helburu taktikoa, baina, era berean, proiektu estrategikoen arteko konfrontazioa eta borroka ideologiko gogorak biztuko dituzten garaien aurrean gaude. Helburu taktikoen premiaren izean ezin ditugu helburu estrategikoak alde batera utzi, eta proiektu independentista mahai gainean jartzeko ordua heldu da. Are gehiago ziklo autonomista agortuta edo hilda dagoela eta marko juridiko-politiko berri batera joan behar dugula onartzen denean esparru abertzale-nazionalista osoan.

“A la hora de movilizarse los grupos étnicos para estructurarse como nación, se ha respondido con el negacionismo no reconociendo más naciones que los estados constituidos; o con el contranacionalismo, para deslegitimar con toda clase de mentiras y falsedades el independentismo.”

Jadanik, ezin da hitz egin independentziari buruz era abstratuan. Amaitu dira eufemismoen, epelkerien, demagogi semantikoen eta diskurtso bikoitzen garaiak. Gaur Euskal Herriaren independentziak, askatasunak, izen eta abizenak ditu: Euskal Errepublikak Independentia. Euskal Estatu sortzeko estrategiaz eta bide orriaz ari gara. Eta horretarako herri bat martxan behar dugu eta martxan jartzen ari gara.

ESPARRU UTOPIKOTIK EZTABAIDA POLITIKO ERREALERA: XXI. MENDEKO INDEPENDENTISMOA

Gezurra badirudi ere, oraindik independentismoa oso estigmatizatuta dago. Ekonomia munduan, negozio munduan zein arlo desberdinetako profesionalen artean, herritar asko ez da ausartzen independentista moduan publikoki agertzen horrek bere negozio, ibilbide profesional edo interes pertsonalak zuzen-zuzenean kaltetzen dituelako. Ondorioz, independentismoaren alor handi bat ikusitezina da oraindik, eta errealtate honen aurrean independentistok izugarrizko ahalegina egin behar dugu independentismoa azaleratzeko, gero eta jende gehiago naturaltasun osoz independentista moduan gizartearen aurrean ager dadin, eta oraindik ausartu ez direnek urratsa emateko baldintza hobek izan ditzaten.

Mugimendu independentista indartsu bat martxan jarri behar dugu, eta indar metaketarekin batera nazioartearen babesa da oso garrantzitsua, eta horretan zeregin handia du euskal diasporak ere.

Ahalegin horietan dabil Independentistak Sarea: pertsona independentistak interkonektatu Euskal Herrian zein munduan zehar barraiaturik dagoen euskal komunitatean; ekimen eta mobilizazio partehartzaileak burutu; eta guztion arteko auzolan erraldoia bideratu. Independentziaren aldeko herri lobby zabal eta sendoa eraiki nahi dugu, eta Independentzia politikaren esparru utopikotik eguneroko eztabaida politiko errealerara pasatu nahi dugu.

Mugimendu honek, bidea egin ahala, XXI. menderako independentismoa landu, sakondu eta



finkatu beharko du. Aurrerakoia, etorkizuna irakurri eta gaurko eta biharko fenomenoetarako erantzunak emateko gai den independentismoa. Globalizazio ekonomiko, kultural eta mediatikoari; migrazioei; geure inguruan zein mundu mailan ematen ari diren gertakizun eta gatazka sozial eta politikoei erantzuteko gai dena. Etorkizun ilusionagarri, erakargarri eta sinesgarria eskaintzen duen proiektua.

Sareak, norabide horretan, Ideien Faktoria sortu du, independentziaren gaia sakontzeko, alor desberdinak aztertzeko, bideak jorrazteko, iritziak partekatzeke eta ideien konfrontaziorako argumentarioa lantzeko. Hausnarketa gune guztiz ireki eta parte-hartzailea antolatu nahi da.

EGOERA EKONOMIKOA: EUSKAL ESTATURIK GABE ETORKIZUNIK EZ

Orain, egoera ekonomikoak eztabaidaren erdian jarri du Estatu propioaren gaia. Krisiarekin zein krisirik gabe, ez daukagu tresna propiorik geure etorkizun ekonomiko eta soziala eraikitzeko. Baina, krisiak askoz gordinako agertzen du gure egoera. Ezintasunez ikusten dugu gure ekonomiaren gaitasunak eta krisi egoeratik ateratzeko aukerak, ihes egiten ditugutela eskuetatik, eta hondamenera goazela.

Gure beharrak eta interesak kontutan hartu gabe, inposatu egiten dizkigute politika ekonomiko eta sozialak. Hemen, ondorioak sufritzen ditugu eta ezin dugu ezer esan, ezer egin. Euskal Estatu behar dugu geure etorkizuna eraikitzeko eta Europan ahots propioa izan eta geure interesak defenditzeko.

Eta ez diezagutela insolidarioak garela esan. Euskal herritarrok, hainbeste amesten dugun herrien Europa sozialaren alde zerbait egiteko aukera bakarra euskal Estatu propioa da. Geure ahots propioa Europan.

Euskal Estatuaren bidetik aukerak eta baldintza objektiboak ditugu justizia sozialean eta elkartzunean oinarritutako eredu sozial bat gauzatzeko; ingurumen eta sozial aldetik efizientea izango den proiektu ekonomiko artikulatzeko eta demokrazian sakontzeko. Hau erreferentzia lagungarria eta aldakuntza politiko eta sozialerako suspertzailea izango litzateke gaitetik herrirentzat, eta benetako elkartasunerako bideak zabalduko litzuzke, elkartasuna askatasunetik bakarrik gauzatu daitekeelako.

INDEPENDENTISMOAREN DIMENTSIO BERRI BATERUNTZ

Ziur nago independentziaren aukerak, eztabaida politikoan tokia hartu ahala, esparru berrietara zabalduko duela bere erreferentzia, Hego Euskal


“No se trata de considerar la independencia como una utopía sino hay que trabajarla como una propuesta progresista capaz de responder a los fenómenos actuales y futuros, a la globalización económica, cultural y mediática, a las migraciones, a los conflictos sociales y políticos de nuestro entorno y del mundo.”

Herrian behintzat. Pentsa dezagun une batez, eta galdetu geure buruari: zer eskaintzen digu Espainiak? Abertzaleoi ezer ez. Ukazioa eta inposaketa besterik ez. Bai, baina zer eskaintzen die abertzale ez diren euskal herritarrei?

Bere identitatearen inposaketak itsututa, euskal identitatearen, hizkuntzaren eta kulturaren etengabeko eraso.



“Cuando ETA ha declarado el final de la lucha armada, se abre una nueva fase en Euskal Herria en la que los objetivos tácticos son el reconocimiento de su nacionalidad, la territorialidad y el derecho a decidir, pero sin olvidar el objetivo estratégico: la Independencia.”



“Los estados nos imponen su modelo económico y social sin tener en cuenta nuestras necesidades e intereses. La única salida es la independencia para tener nuestra propia voz en Europa, poniendo todas nuestras posibilidades a favor de un modelo basado en la justicia social y la solidaridad.”

2012an JAUZIRAKO AUKERA

Datorren urtean, 2012an, 500 urte betetzen dira Nafarroako Erresuma, gure Estatua, bortizkeriaren bidez kendu zigunetik. Eta datorren urtean independentismoak jauzi kualitatibo handi bat eman behar du euskal Estatua berreskuratzeko bidean, eta memoria historikoa etorkizunerako proiektu estrategiko sendo eta erakargarri batekin osatu behar dugu.

Nazioarte mailan bere independentzia prozesuak errealitate sendo eta atzeraezintzat onartuak dituzten herrien artean – Eskozia, Flandria, Groelandia,... – kokatu behar dugu Euskal Herria dagoen urteotan. Nazioarteko agendan sartu behar dugu lehenbaitlehen. Datorren urtea oso egokia da lehen urratsa egiteko.

Urteurrenak aukera ezin hobea eskaintzen digu gure proposamena gizarteratzeko eta gure arrazoiak ezagutzera emateko, independentistok benetan gure indarrak bildu eta elkarlan emankorra burutzeko gai bagara. Horretarako jadanik hasi behar dugu lanean. Guztion ardura da 2012a mugarrari edo inflexio-puntu bilakatzea independentismoaren ibilbidean.

Eskubide zibil eta politiko mailan, eta oinarri demokratikoetan: inboluzio politikoa.

Arlo sozialean, ongizate estatuaren eta babes sozialaren desegitea, atzeraka doan eredu soziala. Eta arlo ekonomikoan, hondamendia.

Gero eta nabarmenagoa da Espainia hondamen hutsa dela arlo politikoan, kulturean, sozialean zein ekonomikoan, edozein euskal herritar demokrata eta progresistarentzat, abertzale izan edo ez izan. Independentzia dimensio politiko berria hartzen ari da eta, jadanik, ez da abertzaleon kontua soilik, euskal herritar guztion etorkizunari lotuta dagoen erreferentzia politikoa baizik.

